

Jessica Young

Finley Flowers

Errezeta
originala



desclée



Finley Flowers

Errezeta originala

AURKIBIDEA

1. atala	
BERRI HANDI BAT.....	7
2. atala	
FIN-SPIRAZIOA.....	15
3. atala	
ZAPORE DASTAKETA.....	26
4. atala	
ERREZETA SEKRETUA.....	33
5. atala	
BIRARAZIZ IRABAZI.....	43
6. atala	
AFARIA EDALONTZIAN.....	51

7. atala	
DANBAI	67
8. atala	
XOMORROAK ENBORREAN	77
9. atala	
EGARRIAK AKABATU BEHARREAN.....	85
10. atala	
GARAIPEN GOZOA	94
11. atala	
ARRAIOAI	106
12. atala	
URTEBETETZE MUTILA.....	111

1. atala

BERRI HANDI BAT

Finley Flowersen lagun minak, Henryk, bederatzi urte beteko zituen bi aste baino gutxiagoan, eta Finleyk ez zekien zer arraio oparitu. Gure neska izugarri ona zen eskulanak egiten, baina Henryri oparituak zizkion jada asmakizunik hoberenak: bazituen zinta itsasgarriaz egindako txankletak eta tximeleta-begizta; bazituen gozoki-mosaikoekin apainduriko argazki-markoak; bazuen edari-latetako uztaiez egindako sare-kota; bazuen iluntasunean distira egiten zuen amets-harrapatzailea; bazuen buztinezko marisorginen familia oso bat (Henryren xomorrerik gustukoenak); eta bazituen zorionaren

giltzatakoak eta adiskidetasunaren eskumuturrekoak, kolore guztietakoak. Zaila baino zailagoa izango zen iazko oparia hobetzea: eskalazko Eiffel dorrea, pipak garbitzeko eskuilez egina.



Henry Lin kalearen bukaerara bizitzera etorri zenean, Finleyk bost urte zituen. Mutikoak Finleyren kartoizko denbora-makinaren kontra txikitu zuen bere bizikleta, eta lagun min egin ziren orduz geroztik. Finleyk bazituen beste lagun batzuk, noski; Kate, esaterako, kaleaz bestaldera bizi zena, edota Lia

ilegorria. Baina Henry zuen lagunik kuttunena. Txiste kontalari eta gosari-partekatzaile bikaina zen, eta beti zegoen prest abentura kilikagarriak bizitzeko.

Haur eskolan, Finleyk eta Henryk lokatzezko opilak egiten zituzten, eta piraten ontziarekin ibiltzen ziren urarekin jolasteko mahaitxoan. Lehenengo mailan, hildako xomorroen museoa zabaldu zuten armairuen atzean, eta sarrera kobratzen zieten gainerako haurrei ikustera sartzeko. Bigarren mailan, Henryk txiklearekin globoak egiten irakatsi zion eta, gero, ilean itsatsitako mordoiloa askatzen.

Henryren urtebetetzea aukera paregabea zen Finleyrentzat laguna zenbateraino estimatzen zuen erakusteko. Baina ez zekien nola. Egia esateko, Henryk ez zion sekula aipatu benetan desiratzen zuen ezer, ideia txoro pare bat alde batera utzita, noski: eguzki energiaz eragindako izozki-kamioia edota Egiptora piramideak ikustera egin nahi zuen bidaia. Finleyk asteak zeramatzan Henryren opariarekin kezkatuta. Eta azkenean, bizkar-zorroaren hondoan galdutako etxerako lanen bila zebilela, plan bikain bat bururatu zitzaion egun handia baino hamar egun lehenago.

Glendale Eskolako urteko lehenbiziko sukaldaritza lehiaketa!

Jantzi ezazu sukaldari txanoa eta izan zaitez sortzailea, zure errezetarik originalena erakusteko unea baita! Aurtengo udaberriko diru-bilketarako, Glendale Eskolak bere lehenbiziko sukaldaritza lehiaketa antolatu du! Adin guztietako ikasleei dei egiten zaie parte har dezaten. Errazio gehien saltzen dituen ikasleak sari goxo-goxoa eramango du... Ore Hegalariko pizza dohain urtebeterako!

Zatoz datorren larunbatean gimnasiaora zure errezeta originalarekin. Gonbidatu zure familia eta lagunak tiketak eros ditzaten errezeta horiek dastatzeko. Bildutako dirua Glendale Eskolan jolastoki berria egiteko erabiliko da!

Irakasleak, Txinpart jaunak, jolas ordurako deia egin zuenean, Finley jauzi batez altxatu zen eserlekutik. Bazuen Henryri kontatu nahi zion zerbait. Berri handi garrantzitsu bat. Eta berehala esaten ez bazion, bertan lehertuko zen!

Finley gainerako ikaskideekin batera ilaran jarri, eta gelatik atera ziren denak. Irakasleak atariaren bukaerako bi orriko atean zehar irten ziren eguzki argirantz. Finleyk Henry jolaslekura zihoala ikusi zuen, eta korrika abiatu zen harengana.

—Aupa! —agurtu zuen, korrikaldia saltotxo batekin bukatuz—. Irakurri al duzu *Glendale* aldizkaria?

—Arraioa! —txilio egin zuen Henryk—. Ez ba. Zergatik?

—Ezetz asmatu zertan datzan udaberriko diru-bilketa!

Henryk beisboleko bisera buruan sartu, eta pentsakor geratu zen.

—Zera... arraina frijitzean?



Finleyk burua astindu zuen.

—Kandela kirastunak saltzean?

—Ez ba!

—Herri lasterketan? —esan zuen irriz, begiak ñir-ñir.

—Baita zera ere! —bota zion Finleyk ezezko
imintzioa eginez—. Benetan dibertigarria den zerbaitez
ari naiz.

Henryk sorbaldak altxatu zituen.